Beasaingo udala
gogo batez
Beasaingo udal aldizkaria
beasain
57 egunez egun
2014ko uztaila

# Genero eta berdintasun ikastaroa

Berdintasun Foroko emakumeen eskaerari erantzunaz diseinatu du Generoa eta Berdintasuna ikastaroa Udalak. Bizitzaren hainbat alorretan emakumeen aurka ematen diren desberdintasun egoerak, bazterkeria eta indarkeria zertan oinarritzen diren ulertzeko, oinarrizko ikastaroa da. Emakumeei zuzendua dago eta, ikasturte osoko iraupena izango du; 10 saio egingo dira.

El objetivo del curso sobre Género e Igualdad organizado por el Ayuntamiento, en respuesta a la solicitud del Foro por la Igualdad, es comprender los elementos claves en los que se asienta y manifiesta la desigualdad, la exclusión y la violencia contra las mujeres en los diversos ámbitos de la vida. El curso está dirigido a las mujeres, y es gratuito. La inscripción está abierta.

## > Landuko diren gaiak

> Irailak 12: **Binarismo sexuala**. Sexu-genero sistema eta binarismo sexuala, berdintasun eza eta diskriminazioa ahalbidetzen duten elementu nagusi bezala.
>Urriak 10: **Zapalkuntza sistema anitzak.** Nola osatu izan dugu gure emakume nortasuna eta zer dute ikusteko horretan diskriminazioak eta bereizkeriak.
> Azaroak 14: **Patriarkatua.** Patriarkatuaren ardatz nagusietako bat, eta beraz, emakumeen esplotazio eta menderakuntzarena, lanaren banaketa sexuala eta eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa dela identifikatzen da.
> Abenduak 12: **Sexismoa hezkuntzan.** Familia diskriminazioaren eta sexismoaren sustatzaile moduan. Jostailuak, ipuinak, abestiak, marrazkiak eta abar aztertzen dira.
> Urtarrilak 9: **Hizkuntza eta hedabideak.** Hizkuntzan ematen den sexismoa eta horrek gure bizitzetan dituen ondorioak.
> Otsailak 13: **Amatasuna.** Emakumearen identitatea osatzeko garaian amatasuna eta zaintzak duten garrantzia. Emakumeari kostu ekonomiko, fisiko eta emozionalak ekar dakizkiokeen inposizio sozialak izan daitezke.
> Martxoak 6: **Ekonomia eta zaintzak.** Emakumeek bizitzaren sostengurako dakarten ekarpena ikusarazten da zaintzak aintzat hartzen dituen logika baten barruan, merkatu ekonomiaren logikaren aurka.
> Apirilak 10: **Gorputza eta sexualitatea.** Patriarkatua manten eta birsor dadin, familia eta heterosexismoa egitura ekonomiko, politiko eta sozial oinarrizkotzat jotzen dira.
> Maiatzak 8: **Emakumeen aurkako indarkeria.** Emakumeen aurkako indarkeria sortzen eta mantenarazten duten arrazoiak eta alderdiak.
> Ekainak 12: **Feminismoak.** Feminismoaren historia eta berdintasuna lortzeko borrokan zenbait feministen ekarpenak.

## > Temas que se trabajarán

> 12 de septiembre: **Binarismo sexual.** Sistema sexo-género, y el binarismo sexual como elemento clave para la desigualdad y la discriminación.
> 10 de octubre: **Los múltiples sistemas de opresión.** Cómo hemos ido construyendo nuestra identidad como mujeres y qué tiene que ver ésta con la desigualdad y discriminación.
> 14 de noviembre: **Patriarcado.** La familia como agente socializador de la discriminación y el sexismo.
> 12 de diciembre: **Sexismo en la educación.** División sexual del trabajo, y la división entre la esfera pública y privada, como uno de los ejes centrales del patriarcado, y por tanto, de la subordinación y explotación de las mujeres.
> 9 de enero: **Lenguaje y medios de comunicación.** El sexismo en el lenguaje y las consecuencias que éste trae a nuestras vidas.
> 13 de febrero: **Maternidad.** Maternidad como un elemento clave de la conformación de nuestra identidad femenina, a la vez que como una imposición social que genera además altos costos.
> 6 de marzo: **Economía y cuidados.** Aporte y el valor del trabajo de las mujeres en la sostenibilidad de la vida, en el marco de una lógica del cuidado frente a la lógica de la economía de mercado.
> 10 de abril: **Cuerpo y sexualidad.** Heterosexismo y familia como estructura económica, política y social básica para el mantenimiento y la reproducción del patriarcado.
> 8 de mayo: **Violencia y sexualidad.** Causas y factores socioculturales que generan y mantienen la violencia ejercida contra las mujeres.
> 12 de junio: **Feminismos.** Historia del feminismo y el aporte de algunas feministas en la lucha por la igualdad.

## Izen ematea

> Ekainaren 27tik irailaren 10era.
943 087 663 - *berdintasun@beasain.net.*
> 10 saio: Hilero ostiral bat.
17:00etatik 19:00etara.
> Dohainik.
> Del 27 de junio al 10 de septiembre.
943 087 663 - *berdintasun@beasain.net.*
> 10 sesiones: Cada mes un viernes.
De 17:00 a 19:00.
> Gratuito.

# Hiru urte herritarrekin lanean

EH Bilduk osatzen duen Udal Gobernu taldeak hiru urteotako balorazioa egin du herriko erakundeen eta enpresen aurrean, herritarrekin lan eginez Beasain hobea egitea posible dela azpimarratuz.

Se han cumplido tres años desde que EH Bildu llegó al Ayuntamiento de Beasain. Desde un principio se ha intentado hacer una política diferente, basada en la participación ciudadana y en la transparencia en la gestión, demostrando que trabajando entre todos podemos mejorar Beasain. El Gobierno Municipal ha trabajado en tres líneas: trabajar con la ciudadanía, transformar Beasain y la gestión transparente y la adaptación a los nuevos tiempos.



## > herritarrekin lanean

> Ohitura aldaketa suposatu du herritarrekin batera lan egiteak, baina posible dela erakutsi da. Horren adibide dira, Igartza prozesua, aurrekontuak, Berdintasun Plana edo gazteen lokalen prozesua.
> Ez da erraza gauzak parte hartzearekin egitea, lan gehiago suposatzen du, eta bulego batean guztia erabakitzeko baino denbora gehiago behar da. Baina esfortzuak merezi du.
> Udal Gobernu taldea pozik dago hartutako bidearekin. «Herrigintza denon artean egin behar dugu eta bide honek merezi du».

## > trabajando con la ciudadanía

> Ha supuesto un cambio de hábitos trabajar con la ciudadanía, pero se ha demostrado que es posible. Muestra de ello son el proceso de Igartza, los presupuestos municipales, el Plan de Igualdad o el proceso de los locales juveniles.
> Aunque la participación ciudadana supone más trabajo y tiempo, es más enriquecedor.
> El Gobierno Muncipal está muy satisfecho con el nuevo camino que ha empezado a recorrer. «El municipio lo tenemos que hacer entre todos y todas, merece la pena».

## > Beasain eraldatzen

> Eredu jasangarriaren alde ari da lanean Udal Gobernu taldea, posible delako Beasain hobea egitea.
> Mugikortasuna modu orokorrean landu da, helburua oinezkoei eta txirrinduei lehentasuna ematea delarik. Bidegorriaren ardatz nagusia ere osatu da.
> Ingurumen jasangarria helburu hartuta, herriko energia plana garatu da.

## > transformando Beasain

> El Gobierno Municipal trabaja por un modelo sostenible, porque un Beasain mejor es posible.
> En el tema de la movilidad, se le ha dado prioridad a las y los peatones y a las bicicletas. Se está terminando el eje principal del bidegorri.
> Teniendo como objetivo la sostenibilidad medioambiental, se está desarrollando el Plan Energético Municipal.

## > Gardentasuna eta egokitzapena

> Kudeaketa gardena izan du oinarri Udal Gobernu taldeak.
> Egungo egoera kontutan hartuta, gastuak kontrolatzen ahalegindu da Udala.
> Gaur egun behar berriak sortu dira, eta egungo egoerara egokitu eta herritarren ongizateari garrantzia berezia eman zaio. Prebentzio eta formazio programak, auzoetako garraioa... dira horren adibide.
> Aniztasuna ere lantzen hasi da Udala: SOS arrazakeriak kudeatzen duen informazio zerbitzua martxan jarri da.
> Krisi eta langabezia egoeran lanpostuak sortzen ahalegin berezia egin da: 2 udaltzain plaza, aldi baterako 14 lanpostu.

## > transparencia y adaptación

> Uno de los principios del Gobierno Municipal es la transparencia.
> Dada la situación actual, el Ayuntamiento a tratado de controlar los gastos.
> Se ha priorizado el bienestar social y ejemplo de ello son los programas de prevención y formación, el ampliar el baremo de la bonificación de tasas y el transporte en los barrios.
> Se ha comenzado a trabajar el tema de la diversidad: se ha puesto en marcha el servicio de información que gestiona SOS racismo.
> Se ha realizado un esfuerzo por crear puestos de trabajo: 2 plazas de municipal y 14 puestos de trabajo de duración determinada, por ejemplo.




## Mutur Beltz eguna ospatuko da irailaren 27an, trenaren 150. urteurrena ospatzeko

Irailaren 27an festa eguna izango da Beasainen: Mutur Beltz Eguna, trenbidearen linea osoa inauguratu zeneko 150. urteurrena ospatzeko. Beasaindar guztien festa eguna finkatu eta urtetik urtera errotzen joatea da Beasaingo Udalaren asmoa. Mutur Beltz Egunarekin, herriko eragile desberdinak harremanetan jartzea eta kultur sarea sendotzea ere lortu nahi du Udalak.

Prestakuntza eta antolaketa lanean ari dira herriko elkarteak, norbanakoak eta Udala, eta aurreratu dutenez, trena, festa eta trikitixa izango dira festaren protagonista nagusiak. Baina izango da gehiago: jolasak, bertso-desafioa, sagardoa, herri kirolak, kontakizunak, erakusketak, herri afaria…

Irailaren 27an beasaindarrok ginena gogoratu eta biziko dugu.

El próximo 27 de septiembre se celebrará el día Muturbeltz, para recordar el 150 aniversario de la inauguración de la línea del tren. El objetivo del Ayuntamiento es arraigar el citado aniversario. Con el día Muturbeltz se prentende poner en contacto a los distintos agentes del municipio y fomentar una red cultural.

El Ayuntamiento, junto con distintos agentes están trabajando en la organización de este día. Los protagonistas principales del día serán el tren, la trikitixa y la fiesta. También habrá juegos, bertsolaris, sidra, deporte rural, exposiciones y cena popular.

## Egutegi fiskala

Azokari dagokion hirugarren hiruhilekoaren zerga uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean ordaindu beharko da.

El Impuesto del Mercado correspondiente al tercer trimestre, se deberá pagar entre el 1 de julio y el 31 de agosto.

## Obrak hastear



### •• Oriamendi kalea

Con el objetivo de revitalizar la calle Oriamendi, a mediados del verano empezarán las obras en Oriamendi. Se mantendrá el número de aparcamientos y la calle será de una sóla dirección (desde la calle San Inazio hacia Igartza), ampliando la acera de la parte de los comercios e integrando el carril bici. Todo ello para que los peatones y bicicletas tengan más protagonismo.

### •• Hilerria

Hilerria handitzeko lanak hasiko dira laster. 200 horma-hobi edo nitxo gehiago eraikitzeko lekua egokituko da.






### •• Bidegorria

Egunotan bukatuko da Beasaingo bidegorri ardatz nagusia: Igartzatik kiroldegira doana eta Gipuzkoa Plazatik Caf-eko elizaraino doana. Igartza aldean, Trenbide kaletik bideratu da zirkulazioa. Ezkiagan, berriz, semaforoaren bidez bideratuko da trafikoa.



### •• Escuelas

Aprovechando las vacaciones escolares, en Alkartasuna cambiarán las ventanas y en Murumendi se remodelará la entrada principal.

uztaila
beasain egunez egun
> Argitaratzailea: **Beasaingo Udala**
> Helbidea: **Loinazko San Martin plaza**
> Posta elektronikoa: **udala@beasain.net**
> Telefonoa: **943-02 80 50**
> Webgunea: **www.beasain.org**
> Diseinua: **Bidera Zerbitzuak**

# Naia Duarte

> Gazte kooperantea, Hondurasen



## "No vamos a salvar el mundo, pero, lo poco que hacemos, es mucho para ellos"

Duarte irá por tercera vez a Honduras con la ONG AOCES de Zarautz, a ayudar a niños y niñas con dificultades económicas y a tratar de integrarlos en la sociedad. Haizea Tapia y ella compartirán la beca de 11.500 euros que el Ayuntamiento de Beasain tenía destinado para jóvenes cooperantes.

**Noiztik noiza egongo zara Hondurasen?**
Ekainaren 17tik irailaren 4ra arte.

**Beti Gobernuz Kanpoko Erakunde berarekin joan al zara kooperante gisa?**
Bai. Oso esperientzia onak izan ditut aurreko urteetan eta beste behin errepikatzea erabaki dut. Aurreko urteetako leku berera joango naiz, eta jada ezagunak ditudanez, lotura handia dugu.

**Zer ordaintzen duzue bekako laguntzarekin?**
Hegazkineko txartela, poliza, bestelako zergak, elikagaiak, bisa, sentiberatze jardueretarako materiala… Ez goaz mundua salbatzera, baina, egiten dugun apurra, beraientzat asko izaten da.

**Hirugarren aldiz zoaz kooperante gisara, gustura zoazenaren seinale. Gomendatuko al zenieke gainerako herritarrei?**
Bai, noski. Sei lagunentzat izan daiteke beka hau gehienez, eta aurten bi bakarrik animatu gara. Probatzea merezi duen esperientzia dela uste dut.

# Haizea Tapia

> Gazte kooperantea, Bolivian



## "Siempre he querido colaborar en algún proyecto de este tipo, pero no he sabido cómo"

Tapia se estrenará como cooperante. Irá a Bolivia a enseñar a leer, a escribir, matemáticas… Desempeñará esta labor en dos lugares: en una escuela y en la cárcel Mocoví. En esta cárcel alfabetizará y enseñará otras cosas tanto a niños y niñas como a mayores, ya que suele haber familias enteras que viven en la cárcel. Además, tratará de socializar a los niños y niñas que se encuentran en la cárcel con los niños que están en la calle.

**Noiztik noiza joango zara Boliviara?**
Uztailaren 15etik abuztuaren 17ra.

**Nolatan animatu zara aurten proiektu horretan parte hartzera?**
Betidanik izan dut horrelako zerbaitetan parte hartzeko asmoa, baina, ez nekien nola: ez norekin joan, ez eta nora joan ere. La Salle ikastetxean lan egiten dut eta bertan jaso nuen boluntario joateko proposamena eta aukera aprobetxatzea pentsatu nuen.

**Lehen aldiak beti emango du beldur gehiago, eta are gehiago Mocovíko kartzelara zoazenean, ezta?**
Ikusi ditut Mocovi kartzelako irudiak telebistako saioetan eta… Egoera gogorrei aurre egin beharko diedala badakit, baina, tira, ez naiz bakarrik joango eta hilabete egongo naiz Bolivian, eta okerrenera ere laster itzuliko naiz. Ez dakit zer aurkituko dugun, baina, ez dut uste arazorik izango dugunik.